



**Denda, jatetxe, taberna eta
abarretako hizkuntza paisaia
euskalduntzeko BOLUNTARIO
sarea**

Harremanetarako:

JARDUN EUSKARA ELKARTEA
Errotalde jauregia z/g. 20570 Bergara
www.jardun.org
jardun@topagunea.com
TEL. 943763661 / 605712469

SARRERA

Proiektu honen iturria herritar talde batek Bergaran euskara bultzatzeko egitasmoren batean parte hartzeko azaldutako gogoia da. Proposamen haren haritik, lantalde bat osatu eta herriko euskararen hutsuneak aztertu eta horiek gainditzeko bideei buruzko gogoeta egin da.

Gogoeta horretan agertutako hutsuneen artean merkataritzako hizkuntza paisaian euskarak izandako atzerakada nabarmendu da. Atzeraka horren arrazoiengatik inguruan honakoak azaldu dira, besteak beste:

- Dendari batzuen gaitasun falta, ziurtasun falta, gaztelaniaz erosoago sentitzea...
- Bezero euskaldunen eskaririk eza. Bezero askok nahiago izatea kartel horiek euskaraz ere egotea baina nahi hori ez adieraztea dendariei.

Hala, beraz, egoera hori hobetzeko asmoz dator proiektu hau.

HIZKUNTZA PAISAIAREN GARRANTZIA

Hizkuntza paisaia kontzeptua erabiltzen da leku batean, bistan, dauden kartel, errotilu eta abarrak izendatzeko. Kontzeptu hau hizkuntzaren ikuspegitik alderdi oso inportantea da, uneoro begietatik sartzen zaigunak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragin handia duelako.

Proiektu honetan, merkataritza eta ostalaritzako hizkuntza paisaia euskaratzea planteatzen da: erakusleihatetan (eskarapateetan) zein lokal barruetan agertzen diren kartelak, jatetxeetako kartak, pintxo zerrendak...

PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA NONDIK NORAKOAK

Herriko denda, jatetxe, taberna eta abarretako hizkuntza paisaian euskara indartzea eta, ahal den neurrian, nagusi izatea da proiektu honen helburua.

Horretarako, alde batetik, herritarren eskaria helarazi nahi zaie eta, bestetik, baita laguntza eskaini ere.

Helburu horrekin, dendari eta ostalariak euren negozioetan jendaurrean erabiliko dituzten testuak euskaraz idazten lagunduko dien herritar boluntarioen sarea osatu nahi da, gaur egun herrian martxan dagoen *Berriketan* mintzapraktika programa arrakastatsuen antzeko formatuarekin.

PROIEKTUKO PARTAIDEAK ETA EGITEKOAK

Nahi duten dendari eta ostalariek izango dute aukera egitasmoan parte hartzeko. Hartuko duten konpromiso nagusia, boluntarioaren laguntzaz, euren establezimenduko hizkuntza paisaia (errotuluak, menuak, eskaintzak...) euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez jartzea izango da.

Proiektu honek dendari eta ostalariei ondorengo onurak ekarriko dizkie:

- Bezeroei zerbitzu hobea eskaintzea.
- Bezero berriak izateko aukera.
- Sektorekako zenbait material eskuratzeko aukera.
- Publizitatea (euren aldeko kanpaina positiboa).
- ...

Boluntarioak: euskaraz idazteko gaitasuna duen edozeinek hartu ahal izango du parte. Ez da, beraz, euskara maila altua izan beharrik, boluntarioei laguntza eskainiko baitzaie Udaletik eta Jardunetik. Boluntarioak egin beharrekoa dendari bati edo taldetxo bati hizkuntza paisaia euskaratzen laguntzea izango da. Helburua, dendari-ostalariak ahal duen neurrian, berak egitea eta boluntarioak laguntzea izango da, ez dendariari dena eginda ematea. Proiektu honek boluntarioei ondorengo onurak ekarriko dizkie:

- Euskararen aldeko ekarpena egitea, hizkuntzaren normalizazioan eragile aktiboa izanez.
- Bere hizkuntza landu eta hobetzeko aukera.
- Euskaraz bizitzeko aukerak ugaritzea.
-



PROIEKTUAREN BERRI IZATEKO:

Egitasmoaren berri gehiago izan nahi duenak edo parte hartu nahi duenak deitu edo jarri harremanetan Bergarako Jardun euskara elkartearekin.

BOLUNTARIOA IZAN NAHI DUT

IZENA EMATEKO FITXA:

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
Telefonoa:	
e-posta:	

DENDARIA, OSTALARIA... NAIZ

IZENA EMATEKO FITXA:

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
Telefonoa:	
e-posta:	
Establezimendu mota (denda, taberna, jatetxea...):	

IZEN EMATEA Jardunen bulegoan edo e-postaz, jardun@topagunea.com helbidean

- Dendariak, ostalariak... irailaren 15a baino lehen
- Laguntzaile izan nahi duten herritarrak urriaren 15a baino lehen

SUSTATZAILEAK:

Jardun Euskara Elkarte eta Bergarako Udala.

